

- Erreportaia: Soraluze Gogoan taldea herriko historia batzen
- Zer berri: Udalak azpikontrataturako garbitzaileak kobratu gabe

soraluzeko
hamabostekaria **245.** alea
2011ko ekainaren 17an

@ pila pila

A portrait of Hiart Arluziaga, a woman with dark curly hair tied up, smiling. She is wearing a white tank top with red horizontal stripes and a light grey cardigan. The background shows green foliage and a black metal railing.

HIART ARLUZIAGA
Emakumezko alkatea
lehenengoz



FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK FRESADORAS-MANDRINADORAS



SORALUCE

Soraluce S. Coop.
Barrio Osintxu s/n
20570 Bergara
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76
Fax: +43 943 76 51 28
soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com

San Juan sua *Ekainan 23an, Plaza Barrixan*

21:00etan **SORGIN AFARI PARTEHARTZAILIA**

'Afaltzequak, bakoitzak zeoze ekarrirta jango dogu danok!

23:00etan "Iluntasunetik kimutzen da argia" **ANTZEZPEN MUSIKATUA**
Ostean, **UDAKO SOLSTIZIOARI ONGI ETORRIXA!**

SORGIN DANTZIA

**URTEKO OROITZAPEN TXARRAK
SUGARRETAN DESAGERTU!
SASI GUZTIEN GAINETIK... SALTO!**
Gauerdixan, **EDABE MAJIKUA**
musikaz goxaturik!





EGOITZ UNAMUNO



ARITZ ARIZAGA

KALERA, KALERA...

Aupa Aritz!
Zer moduz azterketak? Seguru ondo. Hi tipo inteligentia haiz eta gauza asko kabitzen jazik buruan. Tira, pasatu barri diran hauteskundiez eta herriko emaitzez berba egitteko asmua najakan. Bestiak beste, esateko zela poztu naizen alderdi eskuindar konstituzionalistak ez dabelako datozen lau urtietan herrixan ordezkariarik izango eta txalotzeko EAJK bere hautagai-za erretiratuta elkarlanerako bidian egin daben keinu eskergarria. Baina azkenengo egunetan Katalunian eta Madrilen suminduen mugimenduak egin dittuanak ikusitta, horren inguruan jardutia pentzau juat.

Letrok idazten diharduten momentuan, Kataluniako Generalitate aurrian sumindutako milaka herritar dauaz protestan. Diputatue-ri bizkarrak kolorez pintau jotsezik, Arthur Mass helikopteruan sartu dok badaezpada... Madrilen oster, etxeko hipoteka ezin ordainduta jeuan familia bat babestera jo juek ehundaka herritarrek. Badok ordua bankue-ri be haginak erakusteko. Zelan ez... kastako politikuak hasi dittuk bata bestiaren atzetik adierazpenak egiten, mugimendua kriminalizatzeko ahaleginian. Baina ordu gutxira interneten daok Bartzelonako istiluak benetan probokatu zittuztenak polizia sekretak izan zirala erakusten daben bideua. Je,je,je... Nahi dabena esango juek baina uste juat hango eta hemengo herritarren sentsaziño nagusixak poza eta esperantza dirala. Oin hilabete inguru, hauteskundien aurretik basarriko aittitta batek esan jostan: “badok ordua aurrian dabizen lapur kuadrila horri muturrian takateko bana emon eta atzera bialtzeko, esanaz, oin geuri tokatzen jakuk”. Esperantzaren ordua.

*Politikuak hasi
dittuk bata
bestiaren atzetik
adierazpenak
egitten*

Egoitz Unamuno

*Esperantza gutxi
sortzen jostek
neri politikuak*

Aritz Arizaga

Kaixoo!
Ba azterketen emaitzen zain najaok, Egoitz, neu be esperantziakin. Xalak finala jokatu eta irabaziko daben esperantziakin bebai. Dana esperantzia.

Hauteskundien inguruan esateko ezer gutxi jaukat. Herrixak berba egin juan eta hortxe emaitzok. Oin ikustekua izango dok udalbatza berri honek ia zelan eruango daben herrixa hurrengo urteotan. Esperantza haundirik ez jostek sortzen neri politika munduan ibiltzen diranak, baina tira, ikusiko da. Sumindutakuak prentsan, telebistan, irratixan eta interneten be azaldu dittuk, baina ez juat ulertzen euren egin biharra. Esan biharra jaukat ez dittutela ez Madrileko ezta Bartzelonako protestak telebistatik aparte ikusi, baina, Donostiakua bertan ikusteko aukeria izan najuan. Hamar kanpin eta hoge pankarta. Han ez jeuan besterik. Jenterik be ez najuan ikusi. Eta nere golkorako pentsau najuan “hola ze lortuko juek ba?”.

Berdin pentsatzen jatak politikuak ezer gutxi egingo dabela, ez Donostiako egonaldixan aurrian, ezta Madrileko edo Bartzelonako protesten aurrian be. Hik esan duan moduan, Egoitz, adierazpenak emon han eta hemen eta mugimendu hori kriminalizatu, besterik ez juek egingo. Nik uste, hilabete pare bat barru, baina, hau ahaztuko dala, eta ondorenan akordua geldittuko dala, baina lortu, ezer gutxi lortuko dabela. Ikusteko egongo da eh!, baina esperantza gutxi sortzen jostek neri politikuak, batez be gero eta gorago darenak. Ondo ibili!!

Goguan hartzeko

Usakume onen bat izango da, kale ezkutuan dabilen hori!...

J. Bta Agirre



GUTUNAK

Eskerrak laguntzaileei


Idatzi honen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu Haurren Euskal Jaian eta Erromeri Egunean lagundu diguzuenguztiori. Zuen lagun-

tasunak asko erreztu digu bi egun eder hauek antolatzea. Eskerrik asko bene-benetan.

Urrats dantza taldea Euskal jai batzordea



Gozatu SAREAN



paperen ezin daitekeenaz!

Hurrengo asteetan BIDEO gehiago ipiniko ditugu!

- Gaur:** Juan Ayestaren erakusketako instalazioa
- Ekainak 22:** "Sexu askapen mugimendua gaur" mahaingurua
- Ekainak 24:** San Juan Sua eta sorgin dantzak

Ikusi gehiago:

Haurren Euskal Jaiko argazkiak, Erromerixa Eguneko argazki eta bideoak, Alkatearen kargu hartze ekitaldia, hauteskundeetako bideo-elkarrizketak, ...

Aprobetxatu webgunearen abantailak!

- Herritarren BLOGAK jarraitzeko aukera
- Soraluzeko ekitaldi, hitzaldi, ikastaroen AGENDA osatu eta eguneratua
- Eztabaida guneak zure iritzia emateko aukera ematen dizu!
- Pil-Pilean aldizkaria egunetan sarean irakurtzeko aukera
- Egin gure HARPIDE eta egunero herriko albisteak jasoko dituzu!



Pil-Pilean

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik



Jokin Azpiazu Carballo
Eskubidiez haruntzago

Lehenengo aldiz eskatu doste Pilian zutabe bat idazteko, eta "hau ohoria" pentsau ostian, hasi bihar erabakitzen zeri buruz idatzi ba. Ez dot burua asko nekatu: ekainero moduan, nerekato gai ezinbestekua Lesbiana, Gay eta Trans askapen eguna da. 1969tik ospatzen dan aldarrikapen egun honek oindio zentzurik ete dakan galdetuko dau bateron batek, hainbeste lortu eido eskubidien arluan...

Aspaldidanik dakigu, baina askotan lege eta eskubidiak alde batetik eta jendartia eta hain biharrezko dakan askatasuna bestetik ibili izan dirala. "Zertarako eskubidea, biderik ez badago" esaten zeban kantuak. Zertarako (adibidez) ezkondu, errespeturik ez badago? Gizartian emoten diran eraldaketak motelak dira beti, eta horregaittik, sexu askapena egunez-egun eta leku danetan konkistau bihar dogu: Eskoletan, kalia, tabernetan, jaixetan... Sexismua eta homofobia baztertu nahi baditugu, lan asko dago egitteko, baina lehen pausua lan hori herrixana dala ulertzia litzake. Aurten hainbat soraluzetarrek gaixan inguruko egitaraua osatu dogu ekain osorako. Parte hartzera deitza besterik ez jata geratzen, zutabe honek gaurkuan emondako bozgorailu txiki honatik.

((ENTZUTEKUAK))

Galtzagorri, Jai Herrikoien Aldeko Gazte Mugimendua

Santiago-Santa Ana jaiak prestatzeko lanetan murgilduta daude Galtzagorrixak. Festetako suzuria bota bitartean, 35 lagun batzen dira asanbladan astero jai herrikoi, partehartzaile, parekide eta euskaldunak antolatzeko.

Galtzagorrixak fase barri baten sartu zariela dinozue. Zegaittik?

Oin bost urte Galtzagorri jai batzordiasortuzan eta ordutik herrixa asko aldatu da. Lehen udalak antolatzen zittuan jaixak herri-tarren hitza kontutan hartu bare. Herri-tarren ahotsei bide emeteko sortu zan Galtzagorri Jai Batzordia. Baina egun gaztiok sortu eta gaztiok ardatz gauzkan egitaraua osatiaz arduratzen gara.

35 lagun batzen zarie astero asanbladan. Elkarlana zaila da?

Zaila baino polita da. Aurtengo apustua jai herrikoiak antolatzea izan da eta herri-tarren partehartzea ezinbestekua da. Gaztiok euren ahalmenetan sinistu dabe eta horren emaitza da asanblada bidez antolatzen dan gazte mugimendu barrixa.

Zelako jaixak nahi dozuez?

Herri-ttik herrixandako diran jaixak aldarrikatu nahi dittugu, Plaentzia asetuko dabenak. Festa euskaldunak, parekidiak, amalurra zainduko dabenak eta herri harrotasuna erakusten dabenak. Hortik abiatuz herriko jaixak partehartzailiak eta aldarrikatzailiak be izan bihar dirala sinisten dogu, gunee aske batian oinarri daukenak.



Galtzagorriak batu ziren lehen eguna

Gune askiak aldarrikatziak zer esan nahi dau?

Pertsona danak askatasunez jardutera animatu nahi dittugu, gainontzekuen askatasuna errespetatuz. Norbere identitate, sexu orientazio, kolore eta gustuak diranak dirala, pertsona danak trankil eta gustora sentittuko diran gunia landu nahi dogu.

Erasorik bada, badaukazue erantzunik?

Edukixen lan taldetik prebentzinorako neurri-xak adosten dihardugu. Erasoren bat emonez gero, hainbat neurriz osatutako protokolua jarriko dogu martxan. Erasuen kontra jarraera kontziente eta aktibua egongo da egunero jai gunian.

Egitarauko ekitaldiren bat aurreratzerik?

RKzuloko nostalgixia daukeneztat Mugittu Gherrixa emanaldixa antolatu dogu. Herriko sormena sustatze aldera sortutako ekimena da, gerrixa astinduz herrixa mugitzeko.

"Jaixak partehartzailiak eta aldarrikatzailiak izan bihar dira!"

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

I. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Udaleko instalazioetako garbitzaileak soldatarik gabe

Udalak kontratatutako Cristalux enpresako langileek salatu dute azken hilabeteetan ez direla kobratzen ari. Noiz kobratuko duten jakin nahi dute, bestela, grebara joango dira. Sorluzen zazpi garbitzaile dira guztira eta udalaren instalazio guztiak garbitzeaz arduratzen dira: kiroldegia, eskola, institutua, udaletxea, brigadako lokalak, frontoia, haurtzaindegia eta udaltzaingoen bule-

goa. Cristaluxi udalak ordaintzen dio eta enpresak diru horretatik bere langileei ordaintzen die. Baina langileek diotenez enpresak zorrak ditu Gizarte Segurantzza eta Ogasunarekin eta horietara bideratzen du orain jasotzen duen dirua.

Sei hilabete kobratu gabe

Hainbat kasu daude, muturreko kasua 6 hilabete kobratu gabe daramatzen batena da. Azaldu duenez, enpresarekin tratua bat egiteko prest daude langileak eta proposamenak ere luzatu dizkio te arazoa konpontze aldera. Enpresaren aldetik ordea ez dutela erantzunik jaso eta erabaki irmo bat hartu aurretik herritarrek informatu nahi dituztela jakinarazi dute garbitzaileek. Abenduko soldata erreklamatzeko, aurreko astelehenean epaiketa izan zuen enpresak, ELA sindikatuak aditzera eman duenez baina, ordezkariak agertu ez zirela eta datorren astean emango duela epaia Eibarko epaitegiak.




Modulu aurrefabrikatua kokatuko den gunea.

Xabier Leteren ekitaldiko DVDa salgai

Apirilaren 9an egin zen Xabier Lete euskal kantari eta poeta omentzeko ekitaldia Zi-

nean. Ezoziko Ama abesbatza, musika eskola, Ventos de Saudade, Xero Xiette, Duo Plaentxi, Mansos-Akelarre eta beste herritar batzuk igo ziren taulagainera. Antolatzaileek ekitaldia grabatu eta DVD formatuan jarriko dute salgai 6 eurotan. Asteburu honetan kontzejupean jarriko dute postua (zapatuan 19:00etatik 21:00ra eta domekan 12:30etik 14:30era) eta datozen egunotan herriko zenbait denda eta tabernetan ere salgai egongo da.



Ekainaren 28an elkarretaratzea

Gay, Lesbiana eta Trans askapen eguna aldarrikatzeko elkarretaratzeak egin ohi dira mundu osoan zehar. Sorluzen ere, Behin behineko komite arroxak antolatuta bilkura egingo da arratsaldeko 20:00etan Plaza Barrixan. Herritar denak bertan parte hartzea gonbidatuta daude.

Danborradako nagusien entseguak hastear

Ekainaren 28an egingo da nagusien danborradako lehen entseguak. Uztailaren 22ra arte martitzen eta eguen dantetan egingo dira entseguak, arratsaldeko 20:00etan frontoian. Bertan parte hartu nahi duenak entseguetara agertzea besterik ez du.



Jesus Artolazabal Deparkeleko presidente berria

Hala erabaki zuten ekainaren 4an burutu zen elkartearen urteko batzarrean. 2005ean elkarte sortu zenetik Jesus Astigarraga eibartarra izan da Deparkele, Debabarrena Parkinson Elkartearen presidentea. Aurrerantzean Jesus Artolazabalek beteko du presidente kargua.

1971ko kintoen bazkaria

Urriaren zortzian, eguerdiko 14:00etan, 1971ko kintoen bazkaria egingo da Txurruka jatetxean. Festa horretan parte hartu nahi duenak 55 euro sartu beharko ditu ondorengo Kutzako kontuan: 2101 0062 18 0127885044. Arazorik egon ez dadin, sarrera egiterakoan izena jartzea komeni da.



SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Hiart Arluziaga da Soraluzeako alkatea

Regina atxilotu zuten poliziak deklaratzera

Iazko abuztuan atxilotuta eraman zuten Regina Maiztegi. Bi egun igaro zituen Donostiako komisaldegian, eta denbora horretan ez zioten atxilotze agindurik erakutsi. Atxilotetaren ostean, salaketa ipini zuen legez kanpo atxilotu zutela argudiatuz. Joan zen barixakuan Polizia Nazionalako kide batek "konfusioa" egon zela argudiatu zuen Eibarko epaitegian. Maiztegi atxilotetak helburu mediatikoa zuela uste du eta epaiaren zain dago orain. Elkarrizketa osoa:



Misio taldeak proiektu berria dauka

Haitira laguntza bidaltzeko proiektua itxi berri dute, azken egunotan, herrialdearen egoera irudiz azaltzen duen argazki erakusketarekin. Bisitari kopurua altua izan ez bada ere, eskerrak eman nahi dizkiete urte osoan zehar laguntza eskaini eta begikotasuna erakutsi duten herritar denei. Datorren urteko proiektuan murgilduko dira laster, Dominicar Errepublikan legenardunentzat dagoen ospitale bat lagunduko dute. Horretarako urteroko ekitaldiak mantenduko dituzte (gozoki postua eta Gabonetako tonbola).

M^a Teresa Elozegi ahizpa hil da

Brasilen hil da, 81 urte zituela. 1959. urtean moja egin eta Brasileko hiriburuko haur behartsuen irakasle izan zen. Joan den apirillean hil zen Rio de Janeiron, burmuin isurketa baten ondorioz.



Iturria: Emillita Altuna

Kargu hartze ekitaldia 12.00etan hasitzen eta ordurako saio aretoa jendez lepo zegoen. Azken momenturaino ezin jakin zitekeen zer gertatuko zen alkatetzarekin. Soledad del Bosque eta Lorea de Castrok zuzendu zuten ekitaldia, zinegotzi zaharrenak eta gazteenak. Euren burua alkategai aurkeztu zuten hiru alderdiek eta botoa emateko papeletak banatu zituen idazkariak. Horrela, Hiart Arluziagak bost botu jaso zituen (Bildutik), Soledad del Bosquek bi (PSE-EErenak) eta azkenik EAJko zinegotziek zuri bozkatu zuten. Ez zenez gehiengo absoluturik egon, boto gehien jaso zituen zerrendako hautagaia izendatu zuten alkate.

Botoen emaitzak jakitean ikusleentzako txalo zaparrada batek bete zuten saio aretoa.

Hiart Arluziaga: "Lehentasunezko erronka, hemen eta Euskal Herrian egoera demokratikoa lortzea izango da"

Hiart Arluziaga oso pozik azaldu da alkate kargua aitortu zaionean: "Pozez gainezka hartzen dugu alkatetza eta prest gaude alkatetzak suposatzen duen ardura handiari behar bezala erantzuteko. Aldaketa politiko, sozial eta instituzionala hitzetatik ekintzetara eraman-

go dugu. Lehentasunezko erronka, hemen eta Euskal Herrian egoera demokratikoa lortzea izango da, eskubide nazionalak zein herritar guztien eskubide sozial eta politikoak onartuak izan arte. Bortxa oro desagertzea nahi dugu". Gero gehitu zuen egoera ekonomikoak gehien zigortzen dituzten alde egingodutela. Bukatzeko esan zuen "harrotasunez" hartu duela lehen emakume alkatea izatea. Datozen lau urteetan Soraluze hobetzeko lanean jardungo dutela. Iker Aldazabal EAJko zerrendaburuak Arluziaga zoriondu zuen lehen emakume alkate izateagatik: "Jarrera posibilista bat izan dugu. Egoera ekonomikoa oso konplikatu daukagu denok eta etorkizunean harreman ona izatea espero dugu soraluzetarren alde lan egiteko". Gobernu batzordeak uda aurretik eratzea da orain udaleko ordezkarien hurrengo erronka.



Kargu hartze ekitaldiko bideoa eta argazkiak:





ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua







MAPFRE



SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Soraluze Gogoan lan taldea

Teknologia berrienak oroitzen zaharrak ez ahazteko

www.soraluzegogoan20.blogspot.com blogaren atzean Jesus Maria Barruetabeña, Juan Campos, Luis Felipe Galarraga eta Ignacio Zubizarreta daude. KZguneko klase batean sortu zen bloga egiteko ideia, Aitor Madrid bertako dinamizatzaileak bultzatuta. Garai bateko gure herriari buruzko kontuak eta irudiak batzen ditu egunero elikatuz doan blog honek.

KZguneko klase batean sortu zen bloga egiteko ideia. Ikasleek webguneak zela egin ikasteko hainbat kurtso jaso dituzte. Gehienak 60 urtetik gorako jubilatuen dira eta euren artean askotan irretzen ziren lehengo sasoiak kontuak, txikitako oroitzenak eta argazkiak partekatzen zituzten.

Hori ikusirik, irakasleak berak proposatu zuten material hori dena gordeko zuen atari bat osatzeko. Euren etxeetan zituzten dokumentuak ekarri eta oroitzenekin jantziz, "Soraluze Gogoan" izeneko bloga sortu zuten.

Anbizio handirik gabeko bloga da, hamabostean behin eguneratzen dute eta helburu bi ditu: alde batetik, KZguneko klaseetan ikasten dutena aplikatzeko balio die, argazki albumak sortu, bideoak zintzilikatu, beste gune batzuetara loturak ipini, harpidetza zerbitzua txertatu eta blogetan erabiltzen diren erremintak maneiatuz.

Bestetik, euren argazki zahar, oroitzenak eta bizi-penak txukun-txukun ordenatu eta azalera ekartzeko ere balio die.

200 argazki eta 8 bideo

Argazki, bideo eta egileen oroitzenak Plaentzia duela 50 urte zelakoa zen ikusi daiteke. Dagoeneko zortzi bideo zahar zintzilikatu dituzte eta argazkien albuma 200 alera iristear da.

Gehienak, gerra zibilaren osteko erretratuak dira, blogaren egileen txikitako dokumentuak eurek idatzitako komentarioekin lagunduta doaz, dituzten oroitzenak eta anekdotekin. Andra Mari jaixak, 70. hamarkadako Euskal Jaixak edota fabriketako beharginak eta orduko beste hainbeste testigantza eta irudi bitxi.

Egitura simple eta erabilerraza


Bloga bisitatzen duena erraz mugituko da bertan. Bere egitura hiru zutabetan banatuta dago, erdikoan azken sarrerak azaltzen dira. Eskuman gai guztien zerrenda dago: jaiak, jolasak, aisia, memoriak, argazkiak... Youtube bideoen zerbitzarira eta Picassa argazki albumera lotura zuzena dago eta gehien irakurritako sarrerak ere azaltzen dira. Zutabearen oinetan Soraluzeko beste blogariena eta Plaentzia.com webguneak izandako azken sarrerak ikus daitezke.

Ezkerraldeko zutabearen berriz, sare sozialean blogaren hedapena egiten du eta harpidetza zerbitzua eskaintzen du.



Herritarren partehartzea eskatzen dute

Blogaren egileek Soraluze asko aldatu dela diote eta beste hainbeste aldatuko dela. Orain dela ez hainbeste urte ere oso desberdina zela herria diote, sahiesbiderik, kiroldegirik edo babes ofizialeko etxerik ez zegoenean. Orain eskatzen dutena herritarren parte hartzea da. Diote ederra litzatekeela herritarrek parte hartze haundiagoa izango balute, komentarioak egin, argazkiak jaso edo txikitako oroitzapenak eurekin konpartituko balituzte. Adinari dagokionez, egia da belaunaldi horretako askok ez dutela interneten ibiltzeko ohiturarik. Baina uste dute, horiei mugatu orde, gazteei ere interes haundikoa egin dakiekela bloga, euren herria duela ez hainbeste zelakoa zen ikusi eta ulertu daitekeelako blog jaioberri honen bitartez.



www.soraluzegogoan20.blogspot.com



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Ekainaren 28an gay, lesbiana, bisexual eta transexualen harrotasunaren eguna ospatuko da munduko leku askotan. Gizarteak aurrerapausuak eman ditu talde hauen eskubideen onarpenean, baina egunerokoan, herrietako kale eta plazetan, isladatzen da hori?

Sexu aukera eta identitate danak normalduta dare gizartian?

GRACIA MARTINEZ
Sukaldarixa



Bai zera, aurreiritzi eta faltsukerixa haundixa dago ondio. "Nik onartzen ditud" esan eta gero marginatu egitten dittue. Soraluzen gainera, oso txarto bizi da. Ze inporta jaku zeinekin oheratzen dan aldamenekua?

JOSE MARI MENDIZABAL
Okina



Uste dot baietz, egunerokuan normal bizi dala uste dot. Ingurukoren bat homosexuala dala jakingo baneu, onartzeko problema-rik ez neuke eukiko.

FELISA GRANADA
Etxekoandria



Nik uste lehen baino gehixago baietz, baina ez guztiz. Hemen txarrago daroiagu danok ezagutzen garalako eta jendia seinalatzeko joeria dago. Nahi dabena egitten laga biharko gontseke eta listo!

JOSE ANTONIO BOUZAS
Garbitzailia



Lehen baino gehixago baina ez nahikua, nik uste ondio herrixan jendiak ez dabela ondo ulertzen gaira eta ez jakola gustatzen. Danok aldatu bihar dogu pentsatzeko modua eta kaleko jendia beste begi batzuekin ikusi.

Eman zure iritzia sarean



Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Diseinua eta Sormena
Polígono Amillaga, nº 5
Tif.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Plazatik Gaztetxera sariketa bihar

Bihar Plazatik Gaztetxera txapelketak bertsoz jantziko du 20:30etik aurrera Gaztetxea. Ordu horretan otordua dasatuko dute bertaritzen diren denek eta 22:30 aldera ekingo zaio bertso saioari. Sei bertsolari gaztek jardungo dute kantuan: Josu Urain, Eneritz Arretxe, Ane Labaka, Jon Mikel Mugika, Enaitz Alustiza eta Eneko Beretxinaga soraluzetarrak.

Afarirako izen ematea zabalik dago Arrano, Gaztelupe eta Gaztetxean.

Sorgin dantza ikasteko bi entsegu

Ekainaren 23an San Juan bezperako sua piztuko da Plaza Barrixan. Sorgin dantza ikasi nahi dutenek ekainaren 17an eta 22an dute horretarako aukera. Entseguak goiko eskolan izango dira arratsaldeko 19:30ean.



Ekaineko kultur ekitaldiak

GAUR, ekainak 17

Ikasturte Amaierako Kontzertua
22:00etan, Plaza Zaharrean.

Ant: Soraluzeko Musika Eskola

EKAINAK 22, eguaztena

MAHAI-INGURUA
"Sexu askapen mugimendua gaur"
19:30ean, Gaztetxean.

Ant: Behin-behineko Komite Arrosa

EKAINAK 26, domeka

ZINEA & TERTULIA
"Wild Tigers I have Known"
20:00etan, Arrano elkartearen.

Ant: Behin-behineko Komite Arrosa

Ezozki auzoko jaiak datoz asteburuan

Domeka honetan, hilak 19, Ezozki auzoko jaiak ospatuko da. Umeentzat, gazteentzat zein helduentzat egun osoko egitaraua antolatu dute. Festa eguerdiko 12:00etan hasiko da, Mendotz eta Bizkai trikitilariak giroturiko txorizo eta salda banaketarekin. 12:30ean meza egingo dute Ezoziko ermitan eta ondoren harri jasotze eta trontza erakustaldiek auzoko plaza beteko dute. Herri kirolen ostean Armendi jatetxean bazkalduko dute bertaritzen direnek.

Gaztetoentzat zezenak eta poniak arratsaldez

Arratsaldeko 18:00etan, herriko txikienek Arnoren zezentxoan eta ponien gainean duten trebetasua-

na erakusteko aukera izango dute. Erromeria eta gero, eguna biribiltze aldera umei opariak banatuko zaizkie.




San Juan suek argituko dute 23ko gaua

Urteko gaurik motzena argituko dute San Juan bezperan Pil-pilean Euskara Elkartek eta Gaztetxeak piztuko dituzten suek, baita baserri inguruetan piztuko direnek ere. Udako solstizioa aitzakia hartuta, festa giroan emango zaio udari ongi etorria. Pil-pilean Euskara Elkartek 21:00etarako sorgin afari partehartzailea antolatu du. 23:00etan "Iluntasunetik kimutzen da argia" antzeppen musikatua eskainiko da eta ondoren sorgin dantza egingo dute suaren inguruan. Sasi guztien gainetik salto egin ostean gauer-

dian, edabe majikoa eskainiko da musikaz gozaturik. Gaztetxeak bere aldetik, urteroko egitarauari helduko dio. U-ko plazan sua piztuko dute baina aurretik afari merienda eskainiko dute bertaritzen direnentzat. Suaren gainetik salto egin eta oroitzapen txarrak erre ostean, sorpresaz beteriko gaua izango dela iragarri dute.



 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Soraluze taldekoek denboraldia agurtu dute

Laurogeita hamar lagun batu ziren aurreko zapatuan Txurruka jabetxean denboraldia agurtzeko urtero egin ohi den afarian. Erregionalek gainera hurrengo denboraldian preferente mailan jokatu dutela

ere ospatu zuten. Jokalari eta entrenatzaileez gain, zuzendari batzordeko eta udaleko ordezkariak ere bat egin zuten mahaia- ren bueltan. Sariak eta trofeoak banatzerako ordua heldu zen afa- lostean eta hemen aurtengo sari- tuak nortzuk izan diren:

Goleatzaile onenak:

Kadeteetan: Egoitz Placencia

Jubeniletan: Jon Laskurain

Erregionaletan: Joseba Gallastegi

Erregionala B: Ina Larrañaga

Jokalari erregularrenak:

Kadeteetan: Iker Amezua

Jubeniletan: Urko Azula

Erregionaletan: Iñaki Arribillaga

Erregionala B: Iraultz Arluziaga



Iturria: Luki H.

Joseba Garcia hamalagarren Gorlara igoeran

Bergara eta Elosua artean egiten den Gorlara Igoera- ren XX. edizioa jokatu zen api-

rilaren 4an. 74 partehartzailek 4'9 km-ko ibilbidea egin zuten. Azkarrena, Aitor Zabaleta izan zen, 02:33:47-ko denboraz. Joseba Garcia 34 minutu eta 42 segun- du beranduago helmugaratu zen, sailkapen orokorrean 14. sailka- tuz. Renault Turbo taldeko Kopa txapelketako sailkapenean ber- ritz, lehena izan zen, 03:07:89-ko denbora eginda.

Sailkapen osoa eta informazio gehiago hemen: www.eaf-fva.net



Mendi taldeak asteburupasa egingo du Urduñan

Ekainaren 25ean eta 26an herriko 125 mendizalek astebu- rua pasatuko dute Urduñan (Biz- kaia). Goizeko 9:00etan Estaziño kaletik autobusa hartu eta Nerbioi ibaiko ur-jauzia ikustera joango dira lehenengo egunean. Urduña-

ko Antigua ikastolan gaua pasa ondoren Txarlazo mendian men- di itzulia egingo dute. Domekan arratsaldeko 18:00etan herrian egotea aurreikusten dute antola- tzaileek. Dagoeneko ez dago izena emateko aukerarik.

EMAITZAK

PELOTA

Retegi Bi – Laskurain 22
Aritz Lasa – Zabaleta 16

Titin III – Merino II 21
Gonzalez – Laskurain 22

Gonzalez – Laskurain 22
Mtz de Irujo – Zubieta 16

FUTBOLA

Futbito txapelketa 2011

Arane – Kaztakoak 5-5
Artifices – Diego Valor 6-1
Lokalimotxo – Super torpedos 5-8
Korta team – Joga bonito 6-9
Bar Intxitxu – Eusko label 3-6
Hola dok ala – Gaztetxea 8-1

Arane – Eusko label 2-5
Artifices – Gaztetxea 9-3
Fronton team – Diego valor 16-1
Real coolicos – Kaztakoak 0-3
Korta team – Hola dok ala 4-11
Lokalimotxo – Bar Intxitxu 8-2

AGENDA

PELOTA

Gaur 22:15ean Urrestillan

Titin III – Zubieta
Aritz Lasa – Laskurain

Domek a 19, 12:00etan Añorgan

Atxotegi – Galarza VI
(Bikotea zahazteke)

Ekainak 18 zapatua, 16:30ean:

Eskolarteko pelota partidak
Lehenengo eskolako gazteen arteko txapelketa.

Ondoren, Kadeteak:

Ibai Kortabarria – Gorka Santamaria
Bergarako kadeteen aurka
Jasotako dirua Galtzagorrientzat izango da.

FUTBOLA

Futbito txapelketa 2011

Ekainak 17, barixakua:

19:00etan Kaztakoak – Super torpedos
20:00etan Diego valor – Joga bonito

Ekainak 18, zapatua:

9:15ean Artifices – Hola dok ala
10:15ean Gaztetxea – Joga bonito
11:15ean Lokalimotxo – Arane
12:15ean Korta team – Artifices

ZORION AGURRAK



Irene Perez Arribas
Ekainan 11n 14 urte!!
Zorionak politta,
Loren eta Josun partez!



Jakes Arévalo
Ekainan 20xan 4 urte
betetzen ditzuzalako,
zorionak etxekuen partez!!



Irati Unamuno
Ekainan 10ian 2 urte!!
Zorionak Poxpolintxo!
Muxu asko etxekuen partez.



Miren Uribe
Ekainan 24an 21urte!
Ospatuko dogu zure eguna,
topera Eibarren! Muxu haundi
bat, lagunuen partez!



Nerea eta Irene
Ekainan 7xan eta 11n, 13 eta 14 urte!
Zorionak poxpolinak eta muxu haundi
bat bixontzat!



Zaloa Garcia Rodriguez
Ekainaren 24an 3 urte!!
Zorionak etxeko altxorrari
muxu eta besarkada haundi
bat etxekuen partez.



Iraultz eta Axier Oñederra
Zorionak gure bikote txapeldunari. Ekainan
25ian eta abuztuan 17xan 5 eta 9 urte!
Oso ondo pasatu! Muxu bana etxekuen partez!

jaiotakoak

INAR ARROYO MADERA
MAIER NAVAS RAMIREZ



hildakoak

VICENTE SANCHEZ ACEVES
PURIFICACION MURUA AIZPURUA
BONIFICACION MAIZTEGI MAIZTEGI



LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** San Andres auzoko jaietan bi lagunentzako afaria.



► **Irabazlea:** Marta Rivero

► **Maria Gallastegui,** Soraluzeko kirol teknikaria da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: M^a Ezoia Aizpiri

BASARRI ETA UZTAPIDE EZOZIN

Argazki hau 1950 urte inguruan etarata dago. Bertan Basarri eta Uztapide bertsolarixak ageri dira, Ezoiziko Jaixetan bertsuak botatzen. Urte askuan etorri ziran Ezoiziko plazara bertsotara.

Argazkixan ezkerretik eskumara:

Goixan: Uztapidekin etortzen zan Endoiako lagun bat, Benito Alberdi †, Basarri †, Uztapide †, Flora Eguren †, Juanita Larreategi etxetxokua † eta emakume ezezaguna.

Behian: Teodoro Oteiza “Karakate” †, emakume ezezaguna, Basilio Aizpiri † (orduan auzo alkate zana) eta emakume ezezaguna.

Izan direlako gara...



Iragana **gogoratu** dezaten
bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten
bizi izan ez zutenek


Baldin badakizu,
ez ahaztu...
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!



Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera, Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!
Astebetean itzuliko dizkizugu!

SORALUZKO URTAROEN ARGAZKI LEHIAKETA

UDABERRIA



Gaia: Udaberria adierazten duen Soraluzeko edozein argazki: natura, kalea, baserria.
Epea: ekainaren 30ean.
Nora bidali: aldizkaria@pilpilean.com
Argazkien argitalpenak: aukeratutako 12 argazkiak 2012ko herriko egutegian argitaratuko dira. Horrekin batera argazki guztiekin erakusketa antolatuko da kiroldegiko erakusketa aretoan.



Harategia
Enkarguz
eskatutako janaria ere
prestatzen dugu
HARATEGIA
Kalebarren 3. Soraluze Tel. 943 75 12 49



**TXURITXU
KAFETEGIA**
Nasa barrena leketara dugu
bertarrendatua izan
kaf. puzki, puzki in open
partea gero alaina.
Berlano izena
ada puzki olerketa
guztira elari izan
nasa leketara egote dugu
beste leketara eratean
25 urte zuen zerbitzura zuzi eaker.



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**
100 URTE
1910 - 2010 943 75 13 45

JAVIER MESTRE Tel 943 75 30 98
Elektrizitate eta telekomunikazioak J_mestre_camino@hotmail.com

Telekomunikazio erregistro zbk. 10357
Tentsio baxuko instalazale erregistro zbk. 20/cctb-219
Pitxuri kalea 19-3. ezk. 20.590 Soraluze

Egokitu ezazue zuen antena
kolektiboa LTDaren 2. fasearako

Eskatu aurrekontua konpromisarik gabe




**Kontulan
Aholkularitza S.L.**
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkartek
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82 20590 Soraluze
GIPUZKOA



**MARI MAR
HARATEGIA**
Gurean
Euskal Herriko
produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK